

Lapurreta ugari auzoan

Azken egunotan Bidebietako zenbait auzotar delinkuentziaren aurka neurriak indarrean jar ditzaten eskatzeko sinadura bilketa egiten ari dira. Auzotarrok salatu dutenez, azken asteetan lapurretak areagotu egin dira auzoan.


Auzotarron eskaera nagusia Udaltzaingoaren zaintze lanak indartzea da. Bizilagunek emandako datuen arabera, azken egunotan 5 dendetan lapurtu dute. Horrez gain, gau bakar batean 40 bat kotxetan lapurretak izan dira. Fruiturik eman ez duen saiakerarik ere izan da, oporrak direla eta, hutsik dauden zenbait etxetan. Gainera, ez omen dira falta izan "tiroi" ezagunak.

Auzotarrek drogomenpekotasunarekin lotu dituzte lapurretok, izan ere, diotenez, Serapio Mujika pasealekuan eta Allende plaza inguruetan ohikoak dira heroinazaleen joan-etorriak. Hori guztia dela eta, auzotarrek delinkuentziari eta dromenpekotasunari aurre egiteko zorrotasuna eskatu diote Udalari.

Delitu ugari

Arazoa ez da atzo goizekoa, izan ere, Bidebietan betidanik hutsegite batez besteko handiak eman dira. Udaltzaingoak iaz kaleratutako txostenaren arabera, Bidebieta delitu gehien jazo ohi diren Donostiako eremuen artean da. Lehen eremua Parte Zaharra- Erdialdea da, bigarrena Gros, hirugarrena Egia eta laugarrena Intxaurrondo, Bidebieta eta Altza auzoek osatutakoa. Eremu lasaienak, aldiz, Antigua-Añorga, Aieta eta Loiola-Martutene dira.

Bidebietako bizilagunek jakinarazitakoaren arabera, ahalik eta sinadura gehien bilduko dituzte datozen egunetan. Ondoren, sinadurak udallexean aurkezteko asmoa dute.



Auzotarrek delinkuentziari eta drogomenpekotasunari aurre egiteko zorrotasuna eskatu diote Udalari.

JATETXEA



TABERNA

Birmingham kalea 3 • GROS
Tel.: 943-27.35.04

bi s k u r r a **TABERNA** **PINTXOAK BOKATAK eta... GIRO JATORRA!** **bi s k u r r a** **TABERNA**

Gloria kalea 2
Tel.: (943) 285436

GROSEN

Jose M. Soroa, 10 • Tel.: (943) 28 67 72

Kalea Kursa

Ramon Maria Lili
pasealekua 2
Tfnos.: 943-32.17.13
GROS

Berezitasunak

- Gosariak
- Kafeak
- Pintxoak

07.30etatik aurrera irekita

el Txoko de Ramiro

Gracias
por su visita

Dasta ezazu gure gastronomia eskaintza zabala

Txofre kalea 4 • GROS
Tel.: 943-27.97.99

BODEGA DONOSTIARRA

Hegaluzea, antxoak eta piperminaz egindako otarteko txikiak

Peña Goñi 13 Tel.: 943 290228

baduzu nora jo!